

**2023KO EKAINAREN 17AN, GOIZEKO
09:00ETAN, EGINDAKO SOPELAKO
UDALBATZAREN ERAKETA
BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA CONSTITUCIÓN DE LA
CORPORACIÓN MUNICIPAL DEL
AYUNTAMIENTO DE SOPELA
CELEBRADO EL DIA 17 DE JUNIO DE
2023, A LAS 09:00 HORAS**

BERTARATUTAKO ZINEGOTZI HAUTETSIAK

CONCEJALES Y CONCEJALAS ELECTAS/OS ASISTENTES

D^a Guruzne Carrasson Torrontegi, and
D. Unai del Burgo García, jn
D^a Aitziber Onaindia Martínez, and
D^a Naia Azkarate Estevez, and
D. Mikel Tapia Triguero, jn
D^a Miren Itziar Lazaro Ardanza, and
D^a Arantza Bilbao Olarra, and
D. Josu Barbarias Olabarria, jn
D. Josu Landaluze Zarandona, jn
D^a Amaia Guenetxea Villabeitia, and
D. Gotzon Garai Elgezabal, jn
D^a M^a Angeles Ibarra Egiguren, and
D. Alberto Sobron Calvo, jn
D^a Maider Cristina Núñez Guinea, and
D^a María Luisa Gadea Nebreda, and
D^a María Teresa Fernández García, and
D. Eder García López, jn

JARDUNEKO IDAZKARIA / LA SECRETARIA ACCIDENTAL

D^a Begoña Irastorza Areizaga, and

Sopelan, 2023ko ekainaren 17an, goizeko bederatziak direnean, Begoña Irastorza Areizagak, Sopelako Udaleko behin-behineko Idazkariak, Udalbatza eratzeko behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, hasiera eman zaio Osoko Bilkurari.

Bilkura honen xedea da Sopelako Udalbatza eratzea, maiatzaren 28an egindako hauteskundeen emaitzen arabera, eta, ondoren, Sopelako Udaleko alkate berria hautatzea, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluetan bereziki ezarritakoaren arabera.

En Sopela, a 17 de junio de 2023, siendo las nueve horas de la mañana, toma la palabra Dña. Begoña Irastorza Areizaga, Secretaria Accidental del Ayuntamiento de Sopela, y tras confirmar que existe quórum suficiente para la constitución de la Corporación, se da comienzo al Pleno Municipal.

Esta sesión tiene por objeto la constitución de la Corporación Municipal del Ayuntamiento de Sopela, con arreglo a los resultados de las Elecciones celebradas el pasado 28 de mayo, y, posteriormente, la elección del nuevo alcalde o alcaldesa del Ayuntamiento de Sopela, de acuerdo con lo establecido especialmente en los artículos 195 y 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General.



Behin-behineko idazkariak artikulu horiek irakurri ditu. Aldez aurretik, bertaratutako zinegotziak honako hauek aurkeztu dituzte: identifikazio-ziurtagiriak, ondare-ondasunen aitorpenei buruzko ziurtagiriak, sozietateetan parte hartzeari buruzko ziurtagiriak eta bateraezintasunei eta jarduerei buruzko aitorpenak, Udalatzako kideen Interesen Erregistroan inskribatzeko.

Adin-mahaia Mikel Tapia Trigueros zinegotziak eta Aitziber Onaindia Martínez zinegotziak osatzen dute. Lehenak mahaiburu jardungo du, adinez nagusia delako, eta bigarrenak mahaikide. Begoña Irastorza Areizaga andreak, berriz, idazkari lanetan jardungo du.

Mikel Tapia Trigueros jaunak eta idazkari andreak kreditzialak egiaztago dituzte, eta zinegotzi hautetsien gehiengo osoa egiaztago ondoren, zinegotziak karguaz jabetzeko zina edo promesa egin dute, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan ezarritako formula erabiliz. Horren ostean, Mahaik Udalbatza eratutatzat jo du Legearen arabera.

Ondoren, alkatea aukeratu da. Horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan ezarritakoa betez, honako hauek izendatu dira Alkate izateko hautagai:

D^a Guruzne Carrasson Torrontegi
D. Josu Mirena Landaluze Zarandona
D^a M^a Luisa Gadea Nebreda
D^a M^a Teresa Fernández García
D. Eder García López

Hautagai-zerrendak bozkatu dira, eta honako emaitza hauek lortu dira:

10 BOTO Guruzne Carrasson Torrontegi andrearen alde.

6 BOTO Josu Landaluze Zarandona jaunaren alde.

La Secretaria Accidental procede a la lectura de dichos artículos. Previamente, los concejales y concejalas asistentes han presentado los certificados de identificación, los certificados sobre declaraciones de bienes patrimoniales, certificados sobre participación en sociedades y las declaraciones de incompatibilidades y de actividades, todo ello para su inscripción en el Registro de Intereses de Miembros de la Corporación.

Conforman la Mesa de Edad el Concejal D. Mikel Tapia Trigueros y la concejala D^a Aitziber Onaindia Martínez, actuando el primero como presidente, por ser el de mayor edad, y la segunda como vocal; y como Secretaria la Sra. Begoña Irastorza Areizaga.

El Sr. D. Mikel Tapia Trigueros y la Sra. Secretaria verifican las credenciales, y tras comprobar la mayoría absoluta de los concejales y concejalas electos y electas, se procede al juramento o promesa para la toma de posesión de cargos, haciendo uso de la fórmula establecida en el Real Decreto 707/1979 de 5 de abril, tras lo cual la Mesa declara constituida la Corporación con arreglo a la Ley.

A continuación, se procede a la elección del Alcalde/Alcaldesa, para lo cual, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, se nombran candidatos y candidatas a Alcalde/Alcaldesa a los siguientes:

D^a Guruzne Carrasson Torrontegi
D. Josu Mirena Landaluze Zarandona
D^a M^a Luisa Gadea Nebreda
D^a M^a Teresa Fernández García
D. Eder García López

Se someten a votación las candidaturas, obteniéndose el siguiente resultado:

10 VOTOS a favor de D^a Guruzne Carrasson Torrontegi

6 VOTOS a favor de D. Josu Landaluze Zarandona



<p>BOTO 1 M^a Teresa Fernández García andarearen alde.</p>	<p>Guruzne Carrasson Torrontegi andreak lortu du gehiengo osoa.</p>	<p>Beraz, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 c) artikuluan xedatutakoa betez, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan kargua hartzeko ezarritako formula erabiliz, honen bidez Alkate izendatu zen GURUZNE CARRASSON TORRONTEGI andrea.</p>	<p>Ondorioz, Udalbatza eratu da, eta GURUZNE CARRASSON TORRONTEGI andrea ALKATE hautatu da. Ondoren, zin egin du alkate-kargua.</p>	<p>Jarraian, Guruzne Carrasson Torrontegi alkateak hartu du hitza, eta adierazi du udal-taldeen ordezkariei hitza eman nahi diela hitza, aurreko legegintzaldietan ezarritako ordena berean, boto kopuru txikienetik handienera.</p>	<p>Gero, Eder García López jaunak hartzen du hitza, zera esanez: Egun on guztioi. Eskerrik asko inbestidura saio ezberdin honetara hurbildu zareten guztioi. Ezberdina. Gaur hasiko da aldaketaren legegintzaldia eta Elkarrekin Sopela, aldaketa horren parte aktiboa izango da. Sopelako lehen koalizio gobernu aurrerakoiaren parte izango gara, eta ilusioz eta seriotasunez egiten dugu. Ilusioa, Sopelan gauzak beste modu batera egin daitezkela uste dugulako, herritarrak udalbizitzan inplikatuz. Izen ere, gobernatzea jendearen alde eta jendearentzat lan egitea esan nahi du, baina garrantzitsuena, jendearekin. Demokraziak parte-hartze aktiboa esan nahi duelako eta hori da Elkarrekin-en ezaugarri nagusietako bat: jendea eta bere beharrak gure lan politikoaren lehentasunen erdigunean jartzea. Seriotasunez, jakin badakigulako, egin beharreko lana ez dela erraza, baina gaur gehiengo sendo bat daukan gobernualde bat ateratzen da hemendik, eta</p>
<p>1 VOTOS a favor de D^a M^a Teresa Fernández García</p>	<p>Habiendo conseguido mayoría absoluta D^a Guruzne Carrasson Torrontegi.</p>	<p>Por tanto, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 196 c) de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, y haciendo uso de la fórmula establecida para la toma del cargo en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, por la presente se nombró alcaldesa a la Sra. D^a GURUZNE CARRASSON TORRONTEGI.</p>	<p>En consecuencia, queda constituida la Corporación, resultando elegida ALCALDESA la Sra. D^a GURUZNE CARRASSON TORRONTEGI tras lo cual prestó juramento del cargo de Alcaldesa.</p>	<p>Acto seguido toma la palabra la Sra. Alcaldesa, D^a Guruzne Carrasson Torrontegi, indicando que le gustaría conceder la palabra a los representantes de los grupos municipales, en el mismo orden establecido en anteriores legislaturas, de menor a mayor número de votos.</p>	<p>Después toma la palabra D. Eder García López, para indicar: Egun on guztioi. Gracias a todas las personas que os habéis acercado a este Pleno de investidura diferente. Diferente porque hoy arranca la legislatura del cambio y Elkarrekin Sopela formará parte activa de ese cambio. Formaremos parte del primer gobierno de coalición progresista de Sopela, y lo hacemos con ilusión y con seriedad. Ilusión, porque creemos que se pueden hacer las cosas de otra manera en Sopela, implicando a los y las vecinas en la vida municipal, porque gobernar significa trabajar por y para la gente, pero lo más importante de todo: con la gente, porque la democracia significa participación y ese es uno de los elementos que caracteriza la labor política de Elkarrekin. Poner a la gente y sus necesidades en el centro de las prioridades de nuestra labor política. Con seriedad, porque sabemos que el trabajo a realizar no es fácil. De aquí hoy sale un equipo de gobierno con una mayoría</p>



Iankidetza ezinbesteko elementua izango da Sopelak behar duen eta auzokideek bere botoekin ahalbideratu duten aldaketa gauzatzeko. Aldaketa parte-hartzailea, feminista, hurbilekoa, euskalduna, publikotasuna udal kudeaketaren lehentasunezko elementua izango dena, eta gainerako udal-taldeekin lankidetzen aritzea funtsezkoa izango dena. Gehiengo sendoa dago baina ahalik eta babes handiena bilatuko dugu bultzatzen ditugun neurriatarako. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Sopelara aldaketa ekartzeko Elkarrekin Sopelaren proiektu politikoa babestu duten pertsona guztiei, eta esan nahi diegu gutako onena emango dugula EH Bildurekin eta Sopelako bigarren Alkate, Guruzne Carrassonekin batera, aldaketa hori Sopelako herritarrek positiboki aintzar har dezaten. Eskerrik asko.

Jarraian, M^a Teresa Fernández andreak hartu du hitza, eta honako hau esan du: lehenik eta behin, zorionak Guruzne, zorionak EH Bildu. Asko pozten naiz hauteskunde demokratikoak eta garbiak izan direla egiaztatu izanaz. Egoera hau ez da berria niretzat, ezta gutxiago ere. 4 legegintzaldi daramatzat eta ez da EH Bilduk parte hartzen duen lehen aldia. Esan behar dizut, Eder, Guruzne ez dela Sopelako bigarren alkatea, hirugarrena baizik; izan ere, aurretik beste bat egon zen, 1931n hain zuzen ere. Bestalde, batzuek dagoeneko ezagutzen nauzuenet, badakizue nire leialtasun instituzionala izan dezakezuela. Ez ditut inoiz traicionatuko Udalaren ahaleginak pertsonen onerako. Ez ditut inoiz traicionatuko udalaren ahaleginak pertsonen onerako. Horregatik dihardut lanean eta horregatik jarraitzen dut hemen, politikan, gobernuan edo oposizioan. Akordioak lortuko ditugulakoan, espero dut legegintzaldi lasaia izatea, bizilagunen onerako, eta arrakastatsua guztiotzat. Eskerrik asko.

Jarraian, María Luisa Gadea andreak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Egun on guztioi. Eskerrik asko Osoko

sólida y en el que el trabajo en común y la colaboración van a ser un elemento indispensable para llevar a cabo el cambio que Sopela necesita y que los y las vecinas han posibilitado con su voto. Un cambio en clave participativa, feminista, municipalista, euskaldun, en el que lo público sea un elemento prioritario de la gestión municipal y en el que la colaboración con el resto de fuerzas municipales va a ser fundamental. Hay una mayoría sólida pero buscaremos el mayor apoyo posible a las medidas que impulsemos. Por todo esto, dar las gracias a todas las personas que han apoyado el proyecto político de Elkarrekin Sopela para traer el cambio a Sopela. Decirles que lo daremos todo junto con EH Bildu y D^a Guruzne Carrasson, la segunda Alcaldesa de Sopela, para que ese cambio sea apreciado positivamente por las vecinas y vecinos de Sopela. Eskerrik asko.

Acto seguido toma la palabra D^a M^a Teresa Fernández, para indicar: En primer lugar, enhorabuena Guruzne, enhorabuena EH Bildu. Me congratulo en haber comprobado que han sido unas elecciones democráticas y limpias. Para mi esta situación no es nueva, ni mucho menos. Llevo 4 legislaturas y no es la primera vez en la que participa EH Bildu. He de decirte Eder, que no es la segunda Alcaldesa de Sopela. Ha habido otra anteriormente, en el año 1931, o sea que es la tercera. Por otra parte, como algunos ya me conocéis, sabéis que podéis contar con mi lealtad institucional. Nunca traicionaré los esfuerzos municipales por el bien de las personas. Por eso trabajo y por eso sigo aquí, en política, ya sea en el gobierno o en la oposición. Espero que lleguemos a acuerdos, espero que sea una legislatura tranquila por el bien de los vecinos y exitosa para todas y para todos. Gracias.

Acto seguido toma la palabra D^a María Luisa Gadea, señalando: Egun on guztioi. Gracias por asistir a este Pleno tan



Bilkura garrantzitsu honetara etortzeagatik. Hasteko, Guruzne Carrasson andrea zoriondu nahi dut Sopelako alkate kargua hartu duelako, eta espero dut legealdi aurrerakoia, kolaboratzailea eta aberasgarria izatea Sopelako herritar guztientzat. Dakizunet, Sopelako Auzo Alternatiba Sopelako auzo-elkartetik jaio da, Sopeloztarren artean dagoen haserrean dela eta. Gaur erakundeetan estreinatu gara, 562 bizilagunek gugan jarri duten konfiantzari esker. Bihotzez eskertzen diegu hauteskunde hauetan eman diguten fedea eta, horiei guztiei hutsik ez egitea espero dugu. Horretarako, euren kexak, proposamenak edo iradokizunak helarazten jarraitzeko eskatzen diegu, bai Udalera, bai gure taldera zuzenean, Sopelako bizilagunen arazoak errazago konpon ditzagun. Bildurekin negoziatu dugu eta lankidetza akordio batera iritsi gara. Guk babesia eman diegu Alkatetza eskura dezaten, eta haiek konpromisoa hartu dute Sopelako Udaleko gobernu-taldean benetako zikloa aldatzeko; izan ere, guk lankidetza-politika batean sinesten dugu, non alderdi politiko guztien artean herria eta herritarren bizitza hobetzen lagunduko duten, eta ez beren alderdiak hobetzen. Horretarako, Bilduko gobernu-taldeak 5 puntuoko konpromisoa hartu du gurekin legegintzaldi honetan. Konpromisoa hartzen dute gardentasuna bermatzeko, bai eta beharrezkoak diren udal-erregistroko expedienteen informazioa zuzenean eskuratzeko ere, Sopelako eta gure herriko herritarren eta haien bizi-kalitatearen alde lan egin ahal izan dezagun, gure independentziari eutsiz. Era berean, Gobernu Batzordean parte hartu ahal izango dugu, hitzarekin baina botorik gabe; bilerak izango ditugu, gutxienez hilean behin, Osoko Bilkuraren aurretik, horietan jorratu beharreko edozein gai argitzeko; eta azkenik, Sopelako Udala ordezkatuko dugu Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun eta Gizarte Ekintza Batzordean. Horrez gain, Bilduko gobernu-taldea irekita egongo da legegintzaldian zehar sor daitezkeen beste lankidetza-bide batzuetara, Sopelako Auzo Alternatibak udalean bere lana egin ahal izan dezan,

importante. En principio quiero felicitar a Dña Guruzne Carrasson en su nuevo cargo como Alcaldesa de Sopela esperando que sea una legislatura progresista, colaboradora y enriquecedora para todos los vecinos y vecinas de Sopela. Como sabéis, Alternativa Vecinal de Sopela, ha nacido de una gran parte de la asociación vecinal de Sopela, por el descontento existente entre los Sopeloztarras. Hoy nos estrenamos en las instituciones gracias a la confianza que han depositado en nosotros 562 vecinos y vecinas a los que agradecemos de todo corazón la fe con la que nos han brindado en estas elecciones, a los que esperamos no defraudar, y para ello, les pedimos sigan transmitiéndonos sus quejas, proposiciones o sugerencias, bien en el Ayuntamiento o bien en nuestro grupo directamente, para que nos sea más fácil poder solucionar los problemas de nuestros vecinos y vecinas. Hemos negociado con Bildu y hemos llegado a un acuerdo de colaboración. Nosotros les damos nuestro apoyo para facilitarles la Alcaldía y ellos se comprometen a un cambio de ciclo real en el equipo de gobierno del Ayuntamiento de Sopela, porque nosotros creemos en una política colaborativa en la que entre todos los partidos políticos ayuden a mejorar el pueblo y la vida de sus gentes, no a mejorar sus propios partidos. Para ello, el equipo de gobierno de Bildu, en esta legislatura se compromete con nosotros en 5 puntos. Se comprometen a la transparencia, a facilitarnos el acceso directo a la información de registros del Ayuntamiento de expedientes necesarios para poder trabajar en favor de nuestros vecinos y vecinas de Sopela, de nuestro pueblo y de su calidad de vida, manteniendo nuestra independencia. También podremos asistir a la Junta de Gobierno con voz pero sin voto, tendremos reuniones, al menos mensuales, previas al Pleno para aclarar cualquier tema a tratar en ellos, representaremos al Ayuntamiento de Sopela, en la Comisión de Igualdad y Acción Social de la Mancomunidad de Uribe Kosta, y estarán abiertos a otras vías de colaboración que puedan surgir durante la legislatura para que Alternativa



esate baterako, Uribe Kostako Mankomunitatean jorratutako gaiei buruzko informazioa ematera, eta abar. Beraz, Bilduren gobernu-taldeak eta guk geuk, Sopelako Auzo Alternatibak, lankidetza-testuinguru horretan, bi alderdiok independentzia aitortzen diogu elkarri, eta legegintzaldi osoan elkar errespetatuko dugula hitzematen dugu. Horrela bada, legealdi lasaia izatea espero dugu, Teresak esan duen bezala, herritar guztien onerako.

Ondoren, Josu Landaluze jaunak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Eskerrik asko etorri zaren guzti. Lehenengo eta behin eskerrak emon EAJn konfidantza eman duten bi mila eta piku pertsonari. Zorionak Guruzne, merezi duzu. Oso lan ona egin duzu pasa diran 4 urteetan. Horrela jarraitu.

Elkarlanean aritzea espero dugu. Aurreko legegintzaldian bezala jarraituko dugu lanean Sopelako herritarren alde. Kontuan izan gaitzazue egoki deritzozuen neurrian. Guk ez dugu itunik EH Bildurekin, baina hitz egiten aritu gara. Elkarlanean arituko gara soplontzartar guztien onerako. Eskerrik asko eta Zorionak, bihotzez.

Azkenik, Guruzne Carrasson Udaleko alkateak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: "Nire lehen hitzak eskaini nahi dizkiet gurekin ez dauden pertsonei, Alkatetza eskuratzentz lagundu digitenei, gugan sinetsi dutenei, Soplontzartar guztieei, aurreko zinegotziei, gaur egungoei, bai eta Sopelaren alde lanean dihardutenei duten langile guztieei ere.

Erantzunkizunez, implikazio osoz eta ilusioarekin hartuko dugu Alkatetzaren kargua. Lasaitasunez eta seriotasunez Sopelako Udalak behar dituen aldaketa sakonak abian jarriko ditugu. Lankidetza izango da jorratuko dogun bidea,

Vecinal de Sopela pueda desarrollar su trabajo en el Ayuntamiento, como recibir información de los temas tratados en la Mancomunidad de Uribe Kosta, etc. Para todo ello, el equipo de gobierno de Bildu y nosotros, Alternativa Vecinal de Sopela, en este contexto de colaboración, ambas partes se reconocen su independencia y se comprometen a respetarla durante toda la legislatura. Con ello, esperamos que sea una legislatura, como ha dicho Teresa, tranquila y para bien de todos los vecinos y vecinas.

Posteriormente toma la palabra D. Josu Landaluze, indicando: Gracias a todos los que habéis venido. Agradecer en primer lugar a las dos mil y pico personas que han confiado en el PNV. Felicidades Guruzne, te lo mereces. Has hecho un gran trabajo durante estos 4 años. Sigue así.

Esperemos que colaboremos. Seguiremos trabajando como lo hemos venido haciendo la legislatura pasada en favor de los vecinos y vecinas de Sopela. Contad con nosotros en la medida que consideréis oportuno. Nosotros no tenemos ningún pacto con EH Bildu aunque sí hemos estado hablando. Trabajaremos conjuntamente para beneficio por el bien de todos los Soplontzarras. Eskerrik asko eta Zorionak, bihotzez.

Por último, toma la palabra D^a Guruzne Carrasson, Alcaldesa del Municipio, señalando: Yo quiero dedicar mis primeras palabras a las personas que ya no están con nosotras, a las que nos han ayudado a hacernos con la Alcaldía, a las que han creído en nosotras, a las que nos han apoyado, a todos y todas las Soplontzarras, a los Concejales anteriores, a los actuales y a los trabajadores y trabajadoras que invierten su esfuerzo en Sopela.

Asumiremos el cargo de Alcaldía con responsabilidad, implicación e ilusión. Vamos a poner en marcha con tranquilidad y seriedad los profundos cambios que necesita el Ayuntamiento de Sopela. El camino que abordaremos será



Korporazio honen talde guztiekin, eragile sozialekin, herriko taldeekin, Sopeloztarrekin eta Udaleko langileekin.

Gehiengo politiko aurrerakoia biltzea da gure asmoa. Horregatik, joan den legegintzaldian Elkarrekin Sopela taldearekin izandako konfiantzaren ondorioz, udal gobernu sendo eta ezkertiarreratu dugu. Lan egingo dugu udal-gobernu berria benetan eraldatzailea izan dadin eta lankidetza estuan jardun dezan. Sopelako Auzo Alternatibako zinegotziarekin, hainbat toki-ekimenetan parte hartu dugu. Udaletxetik kanko ondo ezagutzen dugu elkar, eta orain elkarrekin lan egiteko aukera dugu udaletxe barruan ere. Publikoki adierazten dugu lankidetza estuan aritzeko borondatea, betiere auzo-ekimen gisa duzuen independentzia errespetatuz, zuk ondo esan duzun bezala. Era berean, errespetu osoz eta modu eraikitzailean jokatuko dugu aurreko udal-gobernuan parte hartu zuten EAJ eta PSE udal-taldeekin. Gure ateak irekita daude eztabaiderako eta ideiak eta proiektuak eztabaideratzeko.

Eta gure lehentasunetan berresten gara, Zipiriñe eta Iberreko hezkuntza zentroen espazio larriak; babes ofizialeko etxebizitzen beharra; eratzun berdea; trafiko arazoi aurre egin; euskara, gazteak, emakumeak; aniztasun funtzionala duten bizilagunak; adineko pertsonak. Gai hauetan eta beste gai askotan udalbatza hau osatzen dugunok ados jarri beharko gara eta adostasun horiek lortzeko lan egingo dut. 2011n Sopelak emakume bat izendatu zuen Alkate eta ohore bat da, lekuko hori hartzea. Azken hitzak, Sopelarentzat. Alkaterik onena herria izan dadila. Eskerrik asko.

Eta jarraian, bilkura amaitutzat jo da, goizeko bederatziak eta erditan. Hori guztia aktan jaso da, eta nik, behin-behineko idazkari naizen honek, egiaztatzen dut.

el de la colaboración con todos los grupos de esta Corporación, agentes sociales, grupos locales, sopeloztarras y personal del Ayuntamiento.

Nuestra intención es aglutinar una mayoría política progresista. Por eso, la confianza tejida con el grupo Elkarrekin Sopela en la pasada legislatura, nos ha llevado de forma natural a formar un gobierno municipal sólido y de izquierdas. Trabajaremos para que el nuevo gobierno municipal sea realmente transformador y que opere en estrecha y mutua cooperación. Con la concejala de Alternativa Vecinal de Sopela, hemos participado en varias iniciativas locales. Nos conocemos bien fuera del Ayuntamiento y ahora tenemos la oportunidad de trabajar juntas dentro de él. Manifestamos públicamente nuestra voluntad de colaborar estrechamente, respetando siempre su independencia como iniciativa vecinal, como tú bien lo has dicho. Actuaremos con el máximo respeto y de forma constructiva con los grupos municipales PNV y PSE, que formaron parte en el anterior gobierno municipal. Nuestras puertas siempre están abiertas al debate y a discusión de ideas y proyectos.

Y nos reafirmamos en nuestras prioridades, la grave situación de los espacios de los centros educativos de Zipiriñe e Iberre; la necesidad de vivienda de protección oficial; el anillo verde; hacer frente a estos problemas de tráfico; el euskera, los jóvenes, las mujeres; los vecinos con diversidad funcional; las personas mayores. En estos y en muchos otros temas, los que formamos parte de esta corporación municipal tendremos que llegar a un acuerdo y trabajaré para alcanzar esos consensos.

Seguidamente, se da por finalizado este acto, a las nueve horas y treinta minutos, de todo lo que yo, Secretaria Accidental, doy fe en la presente acta.

